

Bertsogileak eta II Mundu Gerratea

(The Bertsolaris and the Second World War)

Urkizu Sarasua, Patri

Eusko Ikaskuntza.

Miramar Jauregia. Miraconcha, 48

20007 - Donostia

BIBLID [1137-4454 (1997), 14; 199-202]

Poema eta bertso ia ezezagunen bitartez agertzen da euskaldun zenbaiten joera goiztiar eta salataria Hitlerren eta bere morroi izan ziren Mussolini eta Frankoren kontra. Halaber, azpimarratzen da euskal koplarien aldaketa Frantziari buruz, I. Mundu gerratetik II.ra.

Giltz-Hitzak: II Mundu Gerratea. Bertsolariak.

A través de poemas y versos poco conocidos se refleja la pronta reacción vasca contra Hitler y sus esbirros Franco y Mussolini. Asimismo se señala la evolución respecto a Francia que se da en los koplaris desde la 1ª Guerra Mundial a la 2ª.

Palabras Clave: II Guerra Mundial. Bertsolaris.

Des poèmes et des vers peu connus reflètent la vive réaction de quelques basques contre Hitler et ses suppôts Franco et Mussolini. De même on observe l'évolution qui se produit par rapport à la France chez les koplaris depuis la Première Guerre mondiale jusqu'à la deuxième.

Mots Clés: II. ème Guerre Mondiale. Bertsolaris.

Jaun-andre agurgarriok: Arratsaldeon denoi.

Benetan poz handia sentitzen dut hemen hainbat adiskide eta gizon jakintsuren artean egotean, eta hainbat gauza interesgarri ikasterakoan Bigarren Mundu Gerrateaz.

Bururatu zitzaidanean Uda-ikastaroa antolatzea *Gerra Irudiak Euskal Herriko Idazleengan* gaiaren inguruan, eta gero Eusko Ikaskuntzaren zuzendaritzatik esan zitzaidanean luza-tzea ideia Iparraldera ez nekien, egia esan, zein izango zen emaitza, eta aitortu behar dugu, noski, Lekukoen Oroitzapenetan emankorra izan dela benetan.

Nere Uda-parteko txostenak titulu hau zuen: *Elissalde eta Etchepare. Apaiza eta medikua gerra kronikari*. Bertan Lehen Mundu Gerrateaz mintzatu nintzen eta honetarako idazlan hauek hartu nituen mintzagai: Piarres Xarritonek prestatu Jean Etchepareren kazetaritza kronikak (Elkar, 1992), eta neronek Zerbitzariaren *LVIIa gerlan* (Alberdania, 1995) liburua. Ez nituen ahanzten, ordea, Jean Barbierrek idatzitako *Piarres* (1926-29) eleberria, Jean Saint-Pierre-ren kronikak (*Les meilleurs pages*, 1952), Pierre Lafittek idatzitako *Egiazko Argia, azken gudako gertakaria*, antzerkitxo desertorearen irudia aztertuz (*Gure Herria*, 1927), Decreet-en *Semetchia* ekitaldi bakarreko opera (BSCLAP, 1923) umezurtzaz, edota Ebaristo Bustintza Kirikiño bizkaitarrak Guda Nagusiaz idatzitakoak (Labayru, 1989). Baina Zerbitzari lapurtarraz eta Etchepare baxanafartarrez bereziki mintzatu ondoren ezin buka nezakeen xuberotarrak aipatu gabe, eta hauen arteko bi koplari aipatu nituen, bata Jean Baptiste Borthiri atharraztarra, eta bestea Louis Ligueix larrañetarra. Lehenbizikoaren bertso hauk aipatzen nituen, errejimentuan hartzen zuten kafeaz:

*Guillaume-ek baizik nurk dü hori phensatü,
Garagar eta ziri errez hura die beltzatü.*

Sarajevo-ko krima salatzen zuten beste bertso egile ezezagun batek idatziak komentatzen nituen ere, funtsean lehengai-iturriak eta kolonien banaketa kontrolatzea etorki zeukan gerra haren inguruan sortuak.

*Hik Belgika bilautsi Gillaumé krudela,
Han odola iresi otsuek bezala.*

Guillaume enperadorea, beraz, otso krudel baten gisa aurkezten zигun koplariak. Luis Ligueix larrañetarraren bertso elebidun eta umorez beteak ez nituen ahanzten, zeinetan ageri zen gerra kontrako izpiritu nabarmena:

*Nous n'avons plus de guerre ez eta beharrik,
Car elle est trop amère en'ustez segurrik.*

Hala eta guztiz ere, 12.bertsoan euskal harrotasunez jantzirik ageriko zaigu Frantziaren alde bizia emateko prest. Honela dio:

*S'il nous refont la guerra, eztükie hoberik,
La France notre mère eztate galdürük;
Nous vengerons nos frères lotsa gabetarik,
Car la mort n'effraie guère Eüsaldun semerik.*

Antonio Zavalak "Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914) (gure erriaren literaturaren erakusbide)" (*Euskera*, 1954) artikuluan Hegoaldeko bertsolarien adibideak ematen zizkigun eta noski, orotarik bazen, batzuek aliadoen aldeko, Txirrita adibidez, besteak alemanzale hala nola IRT –ez dakigu nor zitekeen hau–, eta gehienak bakezale, Garmendia eta "Lexo"ren modura.

Ez ziren urte anitz igaro –hamazazpi urte besterik ez–, eta Espainian gerra zibila piztu zen, zein bigarrenaren aitzin-partea besterik ez zen izan.

Bertsolariak, noski, ez zezaketen utz hau aipatu gabe, hala nola Joseba Zapiain erren-teriarak (Auspoa 123-125), zeinek bi seme hilak eta beste bi preso ukan zituen eta hala guz-tiz ere ez zen mintzo, Jesus Leizaolak dioenez (*Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca*, Ekin, Buenos Aires, 1974), mendekuz eta justizia eske, Txirritaren erdi-irriaz baizik. Bestea JEL-orde bizkaitarra dugu. Honek *Euzko Deya*-n argitaratu zituen *Guda Olerkijak* eta bertan garaian hedatua zegoen iritziari jarraikiz, hala diktadorea Espainiako lurralderen batean ezkutaturik oraindik bizirik izanena zela adierazi ondoren, beste bertso hauek ondu zizkigun “Franko´ren amar aginduak” titulupean:

*Amar eritxi
azaldu dituz
Pardo´tik Franko maltzurak,
Amar diranez eretzi orrek
Bederatzi bai gezurrak.
Beraren erruz
lurperatuak
Milloi ta erdin azurrak,
Errespetua
galduta jaukak
Hitler´en atai-txakurak.*

JEL-orde olerki bizkaitarra, bai kroniketan eta bai satiretan ordenaren, justiziaren eta eskubidearen aldeko ezkutari amorratua agertzen zaigu, pasioz bete eta luma zorrotzekoa.

Inazio Eizmendi “Basarri” errexildarra dugu bestea. Bertsolari zaharren era zuzenean Mussolini, Franco eta Hitler elkarrekin bertso kantari ipinten ditu, eta hona Hitlerren ahotan ematen dituen bertsoak:

*Ez gaitezela beintzat / ur gutxitan ito.
Emandako itzetan / jarrai zagun zintzo.
Ta gure ardatzari / nor esan gaur izo?
Gaizki esanak barka, / Gañontzekoan kito,
Ekatzu esku ori / lagun zar Benito.*

Euzko Deya-n (1939-IV-16) ageri bertso hauetan hala nola gerra kronikagileenetan ikus daiteke nola modu simple eta bereziz gure historia ttipia beste zabalago batean kokatzen den. Hona nola Aipatu Leizaolak gaztelaniaz adierazten digun horixe bera:

Lo más importante, acaso, a deducir del presente estudio es que los vascos, aun en sus capas populares, han gustado de apreciar en su más alta importancia los acontecimientos históricos; no se han limitado a considerar los hechos cotidianos que han suscitado una emoción local más o menos pasajera. Cuando les ha tocado ser actores, en calidad de elementos de una gran masa, en una importante empresa, les ha interesado representarse ésta en su conjunto y en las cumbres mismas en que era dirigida. Por lo cual, al lado de las composiciones poéticas que han dedicado cada día a los episodios en que tomaban parte, han sabido reclamar la gran crónica que situara sus experiencia directas y personales en el cuadro universal del que las otras eran tan sólo detalles particulares.

Hitzok hegoaldeko poeta eta bertsolariak kontutan hartuz emanak badaude, gauza beretsua esan dezakegu Iparraldeko so-aldi bat ematen badiegu. Hala Xabier Diharce

“Iratzeder” donibandarrak bere sorterri ederrean gaez kantari entzuten dituenean aleman tropak, errabiaz beteriko beste honakook sortuko baitizkigu:

ZARRAPO

*Leiotik xeletaka ditugu ikusi
Kantari iragaiteen karrikan nagusi.
Noiz ganen ote dira hemendik ihesi?*

...

18.8.40. Donibanen. (*Biziaren olerkia*, Gero, 1983, 87)

Eta hona bukatzeko azken adibidetxo. Pierre Bordazarre “Etxahun” iruritarrek ondua da, zein ezaguna den bezala plazaz-plaza ibili zen kantari Mattin eta Xalbadorrekin. Oso eza-gunak eta hunkigarriak dira bertsuok eta herri xeheak norenak diren jakin gabe kantatzen ditu. Hona hemen hiru lehen ahapaldiak:

Ai zer plazera bost urthen büian sor-lekilat ützültzia!
Ene herria, etsitu nian zure berriz ikustia.
Aski sofritüz nik hanitxetan desir nükian hiltzia,
Ezpazüntüdan hain maite ükhen, oi Ama Uskal Herria.

Hanitxen gisa, partitü nintzan etsaien güdükatzera,
Gogua bero, bihotza laxü eta kasik alagera,
Ezpenakian, orain ´ordian zer zen amaren beharra,
Hari pents ´eta biga-bostetan aiher zitazün nigarra.

Erresiñula khantari eijer libertatian denian,
Bena trixtüran higatzez dua kaiola baten barnian;
Gü ere, Ama, hala güntüzün tirano haien artian,
Zu ere ametsa kontsolagarri trixtüra handienian.

Ohartuko zineten bezala Louis Ligueixen Lehen Gerrateko bertsoetan *La France notre mère* aipatzen bazen, orain jada Bigarrenaz Etxahunek onduetan *Ama Uskal Herria* dugu.

Soldado eta gerra kantuak ez dira falta izan mendeetan zehar gure euskal literaturaren hesparruan. Bego, beraz, hemengo hurbiltze hauxe II Mundu Gerraz etorkizunean egin daitezkeen saio ttipi gisara, eta beude sakontze lanak eta garaiko euskal aldizkarietan ikertze eta aztertzeak hurrengo baterako eta noizpait plazaratuko balira denak, ikusiko genuke, Leizaolak zioen bezala, gure bertsolari eta idazleak ez zirela egunorokotasunari bizkar eman ez bizi. Bai luma eta bai kantaren bitartez gerraren eta tiranoen higuingarria argi eta garbi adierazten saiatu zirela.

Amaitu dut. Mila esker denoi zuen arretagatik.